

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko maiatzaren 28a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Araitz • '48 ordu euskaraz' festa ospatuko da asteburuan, euskara bultzatzeko.

Mario Santesteban • «Inportazioak hiltzen ditu artisau ofizioak».

Iruñea eta Baiona lotzeko historiaren



soka luzea

Nafarroako hiriburua Gipuzkoatik pasatu gabe Iparraldearekin batuko lukeen bidea eraikitzeko ahaleginak joan den mendekoak dira. Iruñea eta Baiona arteko biderako zazpi proiektu aurkeztu ditu berriki Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak eratutako ikertaldeak. Asmoak ontzeko bidea orain hartu duen arren, bi guneok lotzeko saioak historia luzea du. Joan den mendearen erdi aldera, Aldudetik iraganen litzatekeen trenbide baten proiektua egin zen. Ez zen egin, baina gerora soka luzea ekarri zuen egitasmoak.

Araitz-Betelu • Eingo al deu... euskeraz?

48 ordutan euskara hutsean aritu nahi dute Euskara Batzordekoek

Aurreko arrakasta ikusirik, hainbat araztar berriro 48 ordu euskaraz festa egiteko irrikan ziren. Euskaltzetasunak bultzaturik, edo, besterik gabe, juerga gustukoa izanik, gauza da aurten berriro euskararen aldeko festa egingo dutela, asteburu honetan.



Araztarrek mingaina euskaraz ez dantzatzeko aitzakiarik ez dute izanen asteburuan.

• ARTXIBOKOA

ARAITZ-BETELUKO EUSKARA Batzordekoek badakite, euskararena ez dela asteburu bakar bateko kontua. Baina, hala ere, nonbait, zenbait laguni ahaztu egiten zaie hori, eta oso erraz jotzen dute erdarara. Batik bat tabernetako giroan. Horrenbestez, tabernetako giroa euskalduntzeko zerbait egin beharra zegoela ikusi zuten zenbait herritarrek. Ekintza horrek, alai behar zuen izan, eta zirikatzailea.

Bat edo bati bururatu zitzaion trikiti-bertso-kalejirapoteo bat horretarako neurri egokia izan zitekeela. Hitz-jo-

ko bat ez ezik, tabernetara festa giroa eramateko sistema ere bada kalejira berezi hori. Alegia, trikitalariak eta bertsolariak plazan aritu beharrean, eta festazaleak tabernan po-teatzen, denak batera, tabernaz taberna. Eta, noski, ibilbidea euskaraz egin behar. Bestela, erdaraz ari dena, markatu egiten da. Baina ez da xenofobia kontua, zirikatze-ko modu bat baizik. Betelun hasi, eta Atalluraino, bidean erdaraz aritzen denari pegatina bat jartzen zaio sor-baldan: *Ni banaitz, ¿y tú?*

48 ordu euskaraz
Baina, hala ere, 48 ordu euskaraz ekimenerako bese pegatina bat ere kaleratzen dute Euskara Batzordekoek. Horretan bikote bat ageri da besarkaturik, eta ondoan, hizki larriz, *Eingo al deu...*, eta letra txikiagoaz, azpian:... euskeraz?. Txantxetarako parada eskaintzen du bigarren pegatinak, eta, nonbait, iazko emaitzak ikusita, bat edo batek arrakasta ere izan zuen ligatzeko modu berri honi esker. Araitz-Beteluko Euskara Batzordekoek igan-

derako beste ibilbide bat proposatu dute.

Igandean, 10:30etan, Arribeko plazatik abiatu, eta bailara osatzen duten herri guztiak zeharkatuko dituzte. Mendiz mendi egingo dute herrien arteko bidea: aurrena Atallu, eta gero Azkarate eta Uztegi. Eguerdian, Azkue zelaian bazkalduko dute mendizaleek, doan. Arratsaldean, Gaintza, Intza eta Betelu artekoa egingo dute.

→ Urko Aristi

Betelu

Ireki dute Errege Bidea

ALFONTSO XII.A IBILTZEN zen leku beretik ibili ahal dira orain Beteluko burdinola zaharrera joaten direnak. Oso leku maldatsua izaki, egokitze lanek luze jo zuten. Lurra txukundu, alboetan hesiak paratu eta beste hainbat lan egin dituzte azken urtean. Herriaren mapa, burdinola zahararen historia eta bertan egindako Nafarroako azken txanponari buruzko argibide ugari jarri dituzte, ohol handi batzuetan, bidean zehar barreiaturik. Orain, hauteskunde garaia gertu dela, bidea inauguratzeko aukera aproposa ikusi du alkateak, Jesus Gonzalezek eta asteazkenean egin zen inaugurazioa

Bestalde, bide horretan ezindu fisikoez dutela inolako trabarik topatuko azaldu du Beteluko Udalak, eta hori azaltzeko zenbait afixa argitaratu ditu. Bertan ikusten denez, aulki gurgildunarekin ere primeran paseatu daiteke bainuetxe zaharretik hasi eta burdinolaraino doan bidean.

Plazaola Partzuergoak diruz lagundu du ekimena, bailarak bisitarietara eskaintzeko dituen beste alorretako bat dela uste baitu. Bidea bukatutakoa amaieran dagoen burdinola lehengoratzea da asmoa. Oraingoz, konpondu dituzte geratzen ziren horma bakanak, baina gerora begira egitura guztia lehengoratu nahi dute.

→ Urko Aristi

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Ipuinak kondatzen dizkionean haurrak ahoa irekitzen du. Pozgarria izaten da ipuina kondatzen hasi eta noiz edo noiz zeharka begiratzen dion kondalari nagusiarentzat. Helduak ez ditu batere gogoko izaten haur sinesgogorak, gezurra edo amarrua zein den eta non dagoen aurkitzen ahalegintzen diren horiek. Ez da harritzekoa, frakasuen itzalak bazterak histen dituen hasten baitira galderak.

Horregatik, hotzikarak bizkarrezurra zeharkatzen diola sentitzen duen helduak erabakitzen du ezin duela etsi, ilusiorik gabeko haurrak ez dezakeela aurrera egin behar bezala, lehendik ere badela nahikoa atsekabe, seme-alabak ezin utzi dituela bakarrik galdera ikurrez betetzen joanen den itsaso harrotu horren erdian.

Positiboak

Orduan hasten dira heldu dardaratien ipuin etengabeak, kalaka urduria. «*Gauza positiboak erakutsi behar dizkiegu*». Positiboak. Oso gogokoa dute hitza, ebakitzean infernutik hegan ateratzen lagunduko balie bezala. Komunikazioan omen gakoa, eta sinetsita daude horretarako maila bat jaitsi behar dela, haurren adiskide bihurtu eta ahal den neurrian gozatu. Kolore biziko galtza motzak, kohete itxurako zapatilak, beisboleko kasketa atzekoz aurrera paratua, eskutik helduta abiatzen dira paseora, kirol sailkapenak eta team guztien posibilitateak hizpide harturik.

Haurrari kezak gerorako utziko dizkiola pentsatzen du helduak bere artean, gero hori noiz izanen den edo inoiz izanen den jakin gabe. Bene-benetan esan nahi dutena da ez dela bidezkoa, ez dutela samina merezi, inor ez dela ezerean errudun.

Hutsik egin gabe etorriko dira, ordea. Haurrari, luze gabe, legea etorriko zaio eta zer egin behar duen esan dio, ustegabeen zimurrez beteko zaio bisaia, ulertzen ez duen guztia gainean eroriko zaio, aholkuek ere errazten ez duten kinkan hartu beharko ditu erabakiak.

Zer esan diezaioke une horretan galtza motzak jantzi dituen guraso Peter Panek, adiskide majo horrek? Orain arte haur izandakoak hutsik ditu eskuak. Ez du haririk, ez du heldulekurik, ez du pausoa nora bota behar duen adieraziko dion ahotsik.

Ohartu orduko beste ahots bat mintzatuko zaio. *Game is over* jakinaraziko dio, jokoa amaitzean dagoela, ipuinaren azken hitzak heldu direla. Istant horretan norbaitek argia itzaltzen du eta, nahi eta ez, lo egin behar da.

Uitzi •

Haurrak antzerkera

Mugaz Gain jaialdiaren bosgarren aldia eginen da hurrengo astean

Euskal Herrian dagoen eskola-antzerki jaialdirik garrantzitsuenetakoa Beran egiten da: Mugaz Gain. Bertan, Berako zein Euskal Herriko bertze zenbait tokitako ikasleek antzerki emanaldiak eskaintzen dizkiete euren adin bereko edo bertsuko ikasleei.



Joan den urtean ere hainbat antzerki talde etorri ziren Berara.

• ARTXIBOKOA

AURTENGOA BORZGARRENA IZANEN DA, eta astelehenetik ortzegunera bitarte iraganen da, Lamixine BAT antzerki taldeak antolatutako. Aurten guztira sei ikastetxetako kideek hartuko dute parte.

Astelehenean, Berako taldeen txanda izanen da. Jesusen Bihotza ikastetxeko 2 eta 3. mailako ikasleek *Otsoaren kanta goxoa* antzezlan eskainiko dute. Ondoren, ikastetxe bereko 6. mailako ikasleek *Baserria* lana aurkeztuko dute. Arratsaldean, bertalde, Ricardo Baroja ikastetxeko 5. eta 6. mailako ikasleek bi antzezlan eskainiko dituztet:

Gazteluko mamuak batetik, eta *Gazteon konpromisoak* bertetik.

Asteartean, berriz, Donostiako Santo Tomas Lizeoko batxilergoko 1 eta 2. mailakoek *Afroditararen alabak* lana eskainiko dute, eta ikastetxe bereko DBH 3koek *Dorre ilun misterioa*.

Asteazkenean, bertze bi lan ikusi ahal izanen dira: *Lurretik ilargira*, Hendaiaiko Antzerkilariak elkarteko ertainetako ikasle taldearen eskutik, eta *Markesaren alaba* Lesakako Irain eskolako ikasleentzat.

Jaialdiari akabera emanen dion lana *Match de improvisa-*

ción izanen da, Donostiako San Patricio institutuak antzeztua.

Jaialdiaren helburua gazteak antzerkiarekin giotzea da, eta, horretarako, antzezlan ikusi ostean, aktore eta ikusleentzako solasaldia egiten da. Emanaldi guztiak Berako Kultur Etxean izanen dira, baina soilik ikastetxeetako jendearentzat dago zabalik.

Tanttaka, larunbatean Horien aitzinetik, Tanttaka antzerki talde profesionalak *Shakespeare osoa (gutxi gora behera)* lana eskainiko du Berako Kultur Etxean, bihar.

Talde horrek Dakota lana eman zuen joan den irailean Beran, eta izugarri arrakastatsua gertatu zen. Oraingo lan honetan sona handiko hiru aktorek egiten dute lan: Joseba Apaolaza, Asier Hormaza eta Niko Lizeagak, Berako Kultur Etxean ikusi ahal izanen da bihar, larunbata, arratsko 22:00etan. Sarrera 1.000 pezeta kostako da, eta 800 aldeztatik erosita, Kattu eta Errekalde ostaluetan. Ekitaldia Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatuko du.

→ Jon Abril

herri aldizkariak

Edume Elizondo

Zaborrak kanpora

Baztan, Malerreka eta Bortzirietako zaborrak laster Iruñerriera eramaten dituzte, **Ttipi-ttapako** azken zenbakian Asier Gogortza kazetariak sinatutako artikulua azaltzen duenez: «Duela 10 urte Leitzakoak egin zuten bezala, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Mankomunidadeek akordioa sinatu dute Iruñerriko Mankomunidadearekin, eta ahal bezain laster hasiko dira hondakinak Gongorarat eramaten. Horretarako, ordea, lehenbizi beira, papera eta zabor organikoa bereizi behar da hemen. Nafarroako Gobernu Ingurugiro Departamentuak behartu ditu erabaki hori hartzea, Bagordi eta Beintza-Labaiengo zabortegeen egoera

makurra ikusita. Izan ere, badira urte batzuk labe errausgailuek ez dutela zaborra behar bezala erretzen».

«Eskualdeko beste bi zabortege ere - Goizueta eta Berakoari- bizi laburra gelditzen zaie. Goizuetakoak gehienez ere 2 edo 3 urte gehiago iraunen ote duen aipatu digu Angel Salaberri zabor biltzaileak. Gaur egun Arano eta Goizuetatik 140 tona zabor eramaten dira urtero. Gero lurrez estaltzen dute dena. Bortzirietako zaborrak, berriz, Intzolako errekararen eraman dira 1990. urtetik honat. Han ere tartekalurre botatzen diote gaintetik. Zabortege honeri hamar bat urteko bizitza eman

diote gehienez, baina arazo franko eman ditu dagoeneko».

Egoera zein den kontuan hartuta, erreka guziko zaborrak hemendik kanpo eramatea erabaki dute azkenean Baztan, Malerreka eta Bortzirietako Hiri Hondakin Mankomunidadeek: «Baina Iruñerriko zabortegeira eramanez aitzinetik, eskualdean nonbait elkartu behar dira zabor guztiak. Gisa honetako azterketak egiten dituen enpresa baten arabera, Legasa inguruan egin behar litzateke transferentzia planta hori. Bertizaranako Udalak, ordea, ez du onartzen transferentzia planta Legasako kontzejuan egitea, herritik sobera hurbil dagoela-eta».



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Estatistika

Iragan asteetan hainbat inkestaren emaitzak plazaratu dira eta estatistika pilo bat ikusi ahal izan dugu bainan, sines-taidazue, nik ez dut ez eta inkesta bakar batean parte hartu, niri ez dit inork deus ere ez galdetu, aukera hori sekulan ez dinate niri eskaini, redios. Orduan nik ere inkesta bat burutzera erabaki dut eta jaiki bezain laister horretara jarri naiz. Diruz, denboraz eta populuz oso mugatua izan da nire inkesta, beharrik, bainan behintzat hiritar iritiduna eta zientifikoa izateko aukera eman dit. Datu teknikoak hauek dira: diruz kafe bat, denboraz bost minutu eta populua bi lagun, aitortu dezagun gizonki: ni neu eta, ejem, nire katua. Gaia guztiz generala, galdera bakarra: «Zer iritzi dute nafarrek?», emaitzak ordea aberatsak eta joriak. Gozen bada bada bada ondorio nabarmenenak azpimarratzena. Nafarren erdiak gizonezkoak dira, beste erdiak emeak. Gizonek asko irakurtzen dute, emeek, aldiz, nahiago dute bota diodan pentsua gosaltzea. Nafarren erdiek euskeraz zein gaztelez irakurtzen, idazten eta hitzegiten badakite. Beste erdiak, salara joaten dira eguzkipean etzatera. Nafarren erdiak aspertuta daude Eduardo, Aurelio eta Matias-en libeloeekin; beste erdiek euli baten gorabeherak segitzen dituzte, eta eulia leihoan geldituz gero eraso egiten diote. Nafarren erdiek «eta Ansuategiri buruz zer?» galderari «Bofi!» erantzuten diote pixka bat nazkatuen antzera, gainontzekoek sofa batera jotzen dute azkazalak zorrotzera. Nafarren erdiei ordenagailu aurrean egotea gustatzen zaie, beste erdiei, aldiz, scanner gainean lo egitea. Hauteskundeek galdetzerakoan batzuek EH-ri botoa emango diotela aitortzen duten bitartean, besteek ez dute ja ere aitortzen. Horrela da, gutxi gorabehera, Nafarroako biztanlegoa. Anita eta mar mar mar. Estatistika honetan zu zeu zarena islatzen ez bada, zatoz hurrengoan nirekin batera kafea hartzera: estatistika pittin bat osatuagoa egingo dugu.

Iruñea eta Baiona lotzeko ahaleginen historia luzea

Nafarroako hiriburua Gipuzkoatik pasatu gabe Iparraldearekin batuko lukeen bidea eraikitzeke lehen ahaleginak joan den mendekoak dira

Iruñea eta Baiona arteko biderako zazpi proiektu aurkeztu ditu berriki Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak eta Nafarroako Gobernuak eraturako ikertaldeak. Asmoak ontzeko bidea orain hartu duen arren, bi guneok lotzeko saioak historia luzea du. Joan den mendearen erdialdera, Aldudetik iraganen litzatekeen trenbide baten proiektua egin zen. Ez zen aurrera atera, baina gerora soka luzea ekarri zuen egitasmoak.

ATZERA EGIN BEHAR DA OSO IRUÑEA ETA Baiona lotzeko agintariek egindako lehen ahaleginen berri izateko. Orain guztien ahotan errepidearen aukera besterik ez badabil ere, hasierako asmoa trenbide bat egitea izan zen. XIX. mendearen erdialdean, 1853ko abuztuaren 25ean hain zuten, Pirinioak zeharkatuz (Urkiaga eta Aldudetik) Paris eta Madril lotuko litzatekeen trenbidearen proiektua egiteko agindu zion Diputazioak Azkona diputatuari. Alta, bazegoen beste aukera bat: Iparraldera Irun Hendaiarekin lotuz sartzea. Orduan hasia zen Espainiako trenbide sarea garatzen, eta bi asmoak garrantzi handia izan zuten. Lehen Gipuzkoatik iraganen zen, eta, bigarrena, noski, Nafarroatik. Baina hasiera batean arazo geografiko sopia zirudien arren, laster interes ekonomikoaren arteko gatazka eta arazo militarra ere bilakatu zuten. 1850 eta 1855 bitartean, Espai-

«Txostenak dioenez, orain arte dauden errepide azpiegiturak ez dira nahikoa izanen 2010 urtean Pirinioetako pasabide garrantzitsuenetatik -Irun, Dantxarinea eta Arnegi- iraganen diren ibilgailuei bidea emateko (50.000 egunero). Beraz, beste irtenbide bat aurkitu beharrean omen dira»

Iragan mendean Aldudetik barnako trenbide baten proiektua egin zen.


● MIKEL SAIZ

niako Gobernuak dirua ematen zien trenbideak eraikitzen zituzten hiriei, eta horrek hainbat enpresariren arteko tirabirak sortu zituen. Batzuek Irungo proiektuaren alde egiten zuten; besteek, aldiz, Aldudekoa defendatzen zuten, sutsuki. Tirabirarik handiena 1853 eta 1856 bitarteko gertatu zen eta galdu egin zen Madril-Irungoa atera zelako enkantera; Norteko Trenbide Konpainiak laster hasi zituen eraikuntza lanak. Nafarroako Diputazioak M. Dagueneiti eskatutako proiektua bertan behera gelditu zen; herrialdeko agintari batzuek ez ezik, txosten militar batek ere ezezko biribila eman ziolako proiektuari. Hori gutxi balitz bezala, ondoko herrialdeak ere Aldudeko proiektuaren kontra zeuden. Afera moldatu nahirik, nafarrek Iruneraino joan eta Nafarroa zeharkatuko zuten bide bat proposatu zuten, baina hori ere ez zen onartu. Merkataritza guztia, Gaztelakoa ez ezik Nafarroakoa eta Aragoikoa ere, Gipuzkoatik iragaitea baitzen kontrakoen nahia. Aldudeko asmoa 1877an berpiz-

• **Trenbidearen proiektua**

Trenak Iruñea-Irun bidea (hegoaldeko aukera) edota Iruñea-Baiona (ekialdeko aukera) egiten luke. Imarko-aindik aterako litzateke, eta, lehenagotik dagoen trenbidea baliatuz, Mugerren egonen litzateke lotura. Nolanahi ere, agintariek Pauen egin zuten txostenaren aurkezpenean datu ekonomikorik eman ez arren, garestiegia dela zioten, eta ez dela gauzatuko.

♦ **Trenbidearen Proiektua**



A. PEÑALBA

♦ **Dagoen errepidearen aldaketak**



A. PEÑALBA

• **Dagoen errepidearen moldaketa**

Dagoen bidea antolatzeke bi aukera ikusi ditu ikerketa taldeak. Nafarroako hiriburutik abiatuta, bi proiektuak muga Luzaiden zeharkatuko lukete. Handik Donibane-Garazira jaitsiko lirake. Sallesen edo Peyrehoraden bukatzeko.

→ Irene Arrizurieta


♦ **3 proiektu berriak**

• **Bide berriaren hiru aukerak**

Lan taldeak bide berri bat egitea ere proposatu du, eta hiru pasabide jarri ditu aukeran. Lehendabizikoa, Izpegiko lepotik pasatzea Baigorri-rantz, orotara 18 kilometro osatuko litzatekeen hamasei tunel izanen litzuzke proiektuak.

Bigarrenak, berriz, Aldudetik pasatzea proposatzen du, Esnazuko mendatetik Baigorri-rra jaisteko. Guztira 30 kilometro izanen dituen hamar tunel aurreikusten ditu lanak.

Hirugarrenak, azkenik, Luzaidetik Donibane-Garazira jaistea proposatzen du, 8,3 kilometro osatuko litzuzketen bost tunel eginda.



A. PEÑALBA

tu zuten, besteak beste, Nazario Karrikirik eta Alemaniako Krupp enpresak, Dagueneiten proiektua gogoraraziz. Baina orduan ere Norteko Trenbide Konpainiak eta Madrilgo Gobernuaren alde han zeuden nafarrek -Mugiro senadorea eta Javier Los Arcos diputatua, beste batzuen artean- aurka egin zuten. Serafin Olabe militar errepublikanoak salatu zuen bezala.

XX. mendean ere eman zuten zeresana gaiak, eta 1914, 1923, 1929-30, 1934, 1977, eta 1981ean hitzetik hortzera aipatu

zen. 1914an, adibidez, Antonio Gonzalez Etxartek zuzentzen zuen taldeak trenbide aurreproiektu bat egin zuen Madrildik Iparralderaino. Aldudetik pasatuz, Bideak 440 kilometro zituen, eta 340 milioi pezetako aurrekontua kalkulatu zen (13,6 milioi libera). Urte askotan Etxarterena bezala beste batzuenak ere eztabaidagai izan arren, proiektuok ez zuten aurrera egin.

♦ **Proiektu berriak**

XXI. mendean atarian, berriro ere, mahai gainean da afera, baina orain indarra trenbideak ez baizik mugaz gaindiko autobidearen proposamenak hartu du. Duela gutxi Pauen Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko agintariek eta Nafarroako Gobernuak kideek aurkeztutako txostenaren arabera, Iruñea eta Baiona Gipuzkoatik iragan gabe lotzeko zazpi proiektu aurkeztu dituzte, hiru aukera sailatan banaturik. Txostenak dioenez, orain arte dauden errepide azpiegiturak ez dira nahikoa izanen 2010 urtean Pirinioetako pasabide garrantzitsuenetatik -Irun, Dantxarinea eta Arnegi- iraganen diren ibilgailuei bidea emateko (50.000 egunero). Beraz, beste irtenbide bat aurkitu beharrean omen dira. Hortaz, 42 aukera ikertu ondotik, hiru aukera sail landu ditu taldeak: trenbidea baliatzea, egungo bidea antolatzea edo bide berriak eraikitzea. Dena dela, sei hilabeteko gogoetaldia eginen dutela iragarri dute agintariek eta informazio kanpaina hasi aukeren artean egokiena zein den esateko. Nolanahi ere, hemen inplikaturako herrien eta ekologisten iritzia falta da. Hori heldu den asteokan izanen duzue.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Intxaurrondo hil zeneko 20. urteurrenean

Gaur betetzen da Migel Intxaurrondo euskaltzale nafarra hil zeneko 20. urteurrena; honenbeste tenoreuren eta urrenondo ospatzeko aitzakia bilakatu zaigun aurtengo honetan ere aldarrika dezagun ozenki gizon honen oroitzapena



MIGEL INTXAURRONDO ARRIARAN Araiz aldeko Arriben jaio zen 1897.ean -oharkabearen eta ospatzeko beraz igaro zitzaigun bere mendeurrena orain dela bi urte-. Iruñean apezte ostean, Etulainen aritu zen erretore 1926.era arte, bada, urte hartaz geroz eta lau urtetan barrena, Iruñeko apezgaitegiko euskara irakasle jardun zuen. Gerrate Zibilak Madrilen harrapatu zuen eta Gineara bidaldu zuten guda-ostean kapelau. Ginean ibili ostean, Kartagenan eta Puerto Ricoko Humacaon izan zen, berak 1967.eko uztailearen Principe de Viana-ko euskal gehigarrian zioskun bezala: «Zortzi urtetara dijoa onera etorri nintzela, mixiolari bezela. Len mariñela nintzan. Ontzitan ibiltzen nintzan ara ta onera. Guda ontzitan. Kapellau bezela. Eta zahartuxe egin nintzanean, lurrera jo nun. Baño Madrillen ere, alperkeriaz asper-tuta, berriz lantoki berrira etorri nintzan». Azken hiri honetan zendu zen, bada, 1979.eko maiatzaren 28an, orain dela hogeit urte beraz.

Argitara eman zituen lehenbiko lan idatziak olerkiak izan ziren; 1924.eko *Euskalerraren Alde aldizkarian Sembrando el trigo marzal* izenburuko erdal olerkia agertarazi zuen Etulaindik bidalita, eta 1926.eko *Euskal Esnalea*-n, berriz, Iruñetik igorritako *Aingeruaren itzean* euskal olerkia atera zuen: «Amatxo! Amatxo? Amatxo! / Amatxo? Amatxo... nun zira? / Amatxo! Amatxo! Amatxo? / Egan dabil-tzenok... zoin dira? / Amatxo! Amatxo? Amatxo! / Batek erran dit belarrira... / Amatxo! Amatxo? Amatxo! / Berekin juaiteko Goitira. / -Semetxo! Semetxo! Semetxo! / Dakus-kizun oiek... nun dira? / Oi! Zoi-nek dautsu erran semetxo, / Juaiteko aiekin belarrira? / -Amatxo! Amatxo? Ainge-ruak... / Ni eramatera etorri dira; / Ni alako aingeru ederrak / Goit-tian bizitzen baitira. / -Ez juan,

semetxo enia, / Ez juan berekin Goitira! / Nola ni... biziko ibar-ontan / Berekin zu juaite bazira? / -Banua, amatxo, banua! / -Ez juan, semetxo! Nun zira? / -Amatxo, aingerukin! Amatxo? / Amatxo! Goitira! Goitira! / Amatxo! Amatxo... nigan, / Il-tzean, zu ere jin Goitira. / Biok emen biziren gare, / Or zu ona izaten bazira!».

1926.ean *La iglesia y el euske-ra: obligación de hablar al pueblo en su lengua nativa y de cultivar-la* izenburuko saiakera eman zuen argitara. Pezeta bakarra ba-lio zuen hau Iruñeko gotzai zego-en Mateo Mujikari eta Nafar Al-dundiari eskeini zien. 1926/27 ikasturteari hasiera emateko apezgaitegi kontzilarrean egin ekitaldian irakurritako hitzaldia dugu hondarrean. 98 orrialdeetan barrena, araitarrak herriari bere hizkuntzan hitz egiteko eta ama hizkuntza bera joratzeko apezek duten bete beharreko eginkizuna zeukan mintzabide. Bukaeran gehigarri zenbait eka-rriz zuen, erabili testuen jatorriz-ko aldaerak; euskaltzain, euskal-tzale edota idazle batzuen aipua; eta euskal apezteriarantz ezin egokiago ziratekeen irakurgaien zerrenda. Leon Leon egile haz-pandarrak iruzkin ezin baikorra-go egin zion 1927.eko *Gure Her-ria*-n: «Ez dakit ene idurikoak diren-etz bertzeak, baina orai arte haize hegoa enuen gutienik maite. Zertako? Kaskoa erhaus-ten dautalakat. Baina iragan astez geroz buruko min guziak barkatuak diozkat. Erran zahar-rrak diona, emaitzek harroka hausten eta guritzen dutela, egia bada, egun hautan hegoak egin emaitzak nondik nola enituen hautsiko eta gurituko, enizenaz geroz ez harroka, ez harria, ez eta harrigarria? Asma hegalpean zer ekarri dautan? Liburu bat, li-buruño bat, bere hatsa bezain beroa, beroa bezain bihotz alt-chagarria, eta eskuarari buruz

zerbait ari diren-etzat zinez sus-tagarria».

Handik bi urtetara, 1928.ean alegia, *Metodo práctico del euskera* ondu zuen, Iruñeko San Zernin karri-kan Jose Ara-mendiak zuen moldetegitik elki zena. Onespen emalea Blas Fagoa-ga bera izan zen, eta ja-



so kritikak biziki onak izan ziren eskuarki, guztietan beroeneta-koa Henri Gavelek 1929.eko *Gure Herria*-tik zuzendu ziona: «*Ce livre représente un travail des plus méritoires, et nous paraît appelé à rendre d'éminents services pour l'enseignement du basque en Haute-Navarre*». Gramatika hau, guztiarekin, zailduegia ze-karren, hitanoaren aldaerekin ere, eta jasotzen zuen euskara eredu-a gutxiz gehien gipuzkera-nafarrera izan arren, hainbat ekialdeko ikutuak bazituen. Ale-ki honi erdal-euskal hiztegi batek ematen dio amaiera. Hizteggin-tzaren arloan ere, Euskaltzain-diari *Palabras vascas que no se encuentran en el diccionario V.E.F. del sr. Azkue* izenburuko zazpi orrialdeko hitz zerrenda la-burra igorri zion, Arantz, Goizue-ta, Larraun, Lesaka eta Baztanen bilduak zirenak. Azken orrian Azkuek berak erantsi zuen: «*Hay otra remensa del mismo que contiene 47 palabras*», baina oraino ez omen da ageri.

Azkenik, Silbia Baleztena Azkarateren *Jerusalem* erdal sai-oa euskaratu zuen, baina tamalez ezin izan zuen argitaratu gerra-tea zela eta. Honetan Palestina alde hartaniko Espainiako konsularen emaitzak bizitakoak ja-sotzen dira. Batzuetan Bibliaren gertaeren berokapenak dira, eta besteetan azalpen historikoak zein ohiturazko deskribapenak. Guztiarekin ez zen oso liburu ona, eta idazlearen aurreiritziak zein antisemitismoa nabariak di-ra.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Pionekoak nere

JUZKUTAN MOTZ omen na-bil atzenaldera, eta kontu zahar etnologi-kotan luze. Baliteke, baina, horietan ere, harrizten naiz, halaholako juzku sinesgai-tzen batek ez aldegea niri tar-teka.

Bestek iritzia sortzea, bestek pentsatzea, nahi du egungo jen-dajeak; nor berak ez baitu be-tarik, txorakeriotan bururik hausteko. Aski dizu pakea, de-mokrazia, justizia, autoestima, eta antzeko hitz abstraktu astu-nen bizkarketari huts izateare-kin.

Seguru hitz potolo asperrok bizkarrean erabiltze hutsagatik poliki kobratzen duela, eta ko-bratu gabe erabiltzen dituen, barkakizun dut oraindik, bere inozentziagatik bestegatik ez bada ere.

Erretolika apainduan luzatu beharrean, noiznahi ttaka juzku zorrotz eta bihurriantzak ema-teagatik izan dira errezeloz eta begiratu txarrez hartuak mun-duko tiporik onenak. Zentsura-ren historia ere, ez da besterik: ixti atzera! bere buruz gauzak bihurritzen hasten denari. Plok zituen etsairik xitalenak ere, hor-rexegatik zituen: bere iritzia nonahi zapla botatzen zuela-kotz.

Berriki leitu diot *Juventud, Egotría* liburua, justu nere oraingo urteak zituela 1917an idatzia, eta barra barra botatzen ditu bere juzkuak zertaznahi. Askotan nere traza hartzen diot:

«Zoragarriago da gizonak Odi-sea, Kijote, Hamlet, edo Supaz-ter Xokoan asmatu izana, eta ez milaka miloi zauritu, sofritu, kartzelatu, edo hilketa egin izana. Aleunka jenderen matan-tzak noiznahi izan dira mun-duan, baina, «Os quiero a todos» behin bakarrik sortu da. Nik mundua bakean balego bezala idazten dut, egungo sorraire ho-nen erdi erdian, izpiritua neure molde arrotz honetara hustuz, deusen itxaropenik gabe».

«Nietzsche, pentsamenturik basatienaren fruitu, funtsean gizon ona da; beste muturreko

du honetan Rousseau, izan ere, beti bertuteaz, bihotz sentibe-raz, eta izpiritua sublimiaz ari arren, gixatxar zital hutsa baita izatez. Gizonaren zinezko gaiz-totasuna, ez da ekintzazko eta itxurazko gaiztakeria ikasi inte-resatu hori, baizik eta gizabere-ak bere muinean gorde duen gaiztotasun geldo eta zakar ho-ri, kasik gaiztakeria ere ez den horixe».

«Ulertzeko da, bere bizitza eredutzat daukan jendea izatea oraindik, eta bere azainak kon-tatzeko kemen puska harroa izatea ere, baina, nik ez dut ino-rentzat eredugarri den bizitza pedagogikoa egin, ez eta apro-pos ereduaurka ibili ere. Esku bete egirik ere ez dut (Arestik be-re meza poetikotan bezala) edo-nori purraka saltzeko».

Badakigu nolako izan behar duen gazte doktore baikor lasai potzoak, hamar dozana soldata-rekin. Baina beste bakari horiek, gizatasun bizitza dario-ten horiek, ez dute nondik hel-durik. Horientzat ez da eredurik eta hezierarik. Eskeptizismoa eta ezkortasun sana, ez dira inon irakasten, ikasi ordea, no-nahi.

Edukazio moderno guziari, eunukoen baikorkeria besterik ez dario. Igoal dio eskola maisu, fabrikako txaketila, euskal-tzain, bankero, idazle, ekologo, artista, edo beste edozein zo-zologo herrisaltzaille izan, male-ta lodikote beltz bat eskuan zin-tzilik badakar, akabo: botikario berria duzu, mila teoria laiko-z apezteutako eunukoa. Eta zer egin, inori «Utikan!» esateko ka-paz ez den gogo batekin? Osea: bat eta bera den, gogo guziokin?

«Nere animan bada, sasi eta lahar tartean, Juventud-oren itu-rrri ttiki bat. Esanen didazue ur gordina eta arrea dakarrela; ez dela mehe eta gardena. Egia. Baina, isurian dator, harri tarte-an jauzika, murmurio eta apar-dariola inoizka. Aski dut horre-kin. Ez diot eskuan eutsi nahi; doala lasterrean, galdu dezala bere burua. Beti liruratu izan nau ihesi doanak».

Ziria

• Motxorrosolo •

Sadar aurrean diren zerbitzariak

ONGIZATE ESTATUAN TEORIKOA DENAK BESTELAKO PLEGUAK ERA-kusten ditu ideia horiek praktikara eramateko tenore-an. Gutxiengo gutxitzea haizatzen du demokratikoki aukeraturiko ordezkarien aurrean. Bizkitartean, gehiengo diruditen gutxiengo eskubideak eskubideago direla alda-rrikatuko dizu. Sadar aurrean diren zerbitzariak.

Mario Santesteban Uhalgilea

«Inportazioak hiltzen ditu artisau ofizioak»



● MIKEL SAIZ

Mario Santesteban uhalgilea da. Duela hamar urte hasi zen ofizio horretan, baina ganadu azoketan ez bada, ez omen du saltzen. Napar Bideak elkarteak urtero antolatzen dituen Antzinako Merkatu Ibiltarietan ere badabil, baina alferrik, gastuak ordaintzeko adina baino ez omen du ateratzen. Marioren arabera, inportazioak hilen du zaldia jantzeko ofizioa.

soslaia

Mario Santestebanek 54 urte ditu eta Murillo el Fruto herrikoa da. Hala ere, Zarrakaztelun bizi da duela hamar urte emaztea hango praktikantea delako. Dena dela, egunero joaten da jaioterrira animalientzako jantziak egitera. Hurrengo azoka Tuteran du ekainaren 5ean eta 6an.

Uhalgintzaz gain, zintzarriak egiten hasi da. Horrek dirurik ematen ez badio, makila hartu eta egunero mendira joanen dela dio. «Letxu bat jateko ez da buruhauste handiegirik behar. Beti egin dut lan artisautzan. Esku onak ditut eskulangintzarako eta asko gustatzen zait, baina egun deus gutxi egin daiteke», dio etsiturik.

Egiten duena merkaturatzea zaila dela ikusirik, Errumaniatik materiala inportatzen hasi da: zintzarriak, uhalak eta egurra. Dena dela, uhalgintzak ematen dizkion buruhausteak non lasaitu badaki, eta egunero hiru orduz edo txirindulaz ibiltzen da. Badu non aukeratu, batzuetan Bardeetara hurbiltzen da, besteetan Uxueko Zerrara, edo ondoko herrietako xendetan ibiltzen da.

MURILLO EL FRUTO HERRIAN duen lantegian zintzarriek azken ukitua emateko tximinia moldatzen ari zela harapatu genuen Mario. Lantokiak merkatu txiki bat zirudien, zaldia jantzeko materiala ez ezik, urteen poderioz erabiltzen ez diren hainbat lanabes pilatu baitutu bertan.

■ **Nola hasi zinen uhalgile lanean?**

Orain dela hamar urte hasi nintzen. Tafallako Felipe Pernal uhalgileak erakutsi zidan ofizioa.

■ **Uhalgintzan aritu baino lehen zer egiten zenuen?**

Lehen imitaziozko bitxiak egiten nituen burdin hariarekin, baina ez zen batere saltzen. Uhalgile lana hobea izanzen zelakoan, ikasi eta lanean hasi nintzen, baina hau, hura bezala, gaizki doa. Dena atzeritik ekartzen da eta ezin dugu deus egin, inportatuak gurearen aldean ez duelako bi maraiko ere balio.

■ **Zer egiten du uhalgile batek?**

Uhalgile batek zaldien uhaleriak egiten ditu, zaldia jantzen duen guztia: ukuiluko mutur-

gaineakoak, aho-uhalak, kabestruak, buztanpekoak edo aztaluhalak eta abar. Egun, zamari zaldirako lan egiten da, lanerako apenas erabiltzen delako aberea. Ardientzako edota zakkurrentzako lepokoak ere egiten ditut, eta orain zintzarriak egiten ikasten ari naiz.

■ **Zaldia jantzeko atzeritik datozen produktuak konpetentzia handia direla aipatu duzu. Nondik datoz?**

Indiatik eta Taiwanetik datoz. Zaldi gainean jartzeko zelak mexikarrak Kamerun edo Senegaldik ekartzen dituzte, bitakoon batetik. Larrua da, eskuz josia dago, lana hobekiago edo gaizkiago eginda ere, gauza bera da, eta prezio irri-garrietan. Beraz, ez du balio lanean hastea ere.

Hemen egun erdia ematen duzu aho-uhalak egiten, eta handik guri osoa hemengo baten preziora ekartzen dute.

■ **Baina handik ekarritako materialaren kalitatea berdina da?**

Kalitateak merkea denean ez du hainbesteko eraginik. Larrua da, eta eskuz josia dago.

Ez dago ezberdintasun handirik. Zerbait berezia nahi duenarena zuk eginen duzu, baina besterik ez. Horrek nahi duzuna ordaintzen du. Gaur egun, ordea, gehienek zerbait ballagarria eta merkea nahi dute, besterik ez.

■ **Gizakiaren lana gero eta gehiago teknologiak eta makinak ordezkatzeko duen gizarate batean, zer etorkizun duzue?**

Badira lanak non makinak sar daitezkeen, baina beste batzuetan ez. Nirean, belarrien ingurua adibidez nahitaez eskuz egin behar da. Baina egun makina inportaziotik datorren produktuak ordezkatzeko du. Beste herrialde batzuetako eskulan merkearekin egindako lana saltzen da saltoki handietan.

■ **Napar Bideak elkarteak antolatzen dituen Antzinako Merkatuetan zaldia zure produktuak saltzen. Non gehiago?**

Ganadu ferietan batik bat.

■ **Antzinako Merkatuak antolatzea galtzen ari diren artisautza lanbideak biziarazteko modua izan daiteke?**

Ofizio honetan gero eta gehiago inportaziotik datorrena erosten dut. Haiekin lehiatu nahi badut eta zerbait saldu, nahitaez hori egin behar dut. Ezin dut lehiatu. Saiatzen ari gara artisautza babesten, baina zuk egiten duzunaren antzeko produktua inportatzen da eta zurea urperatzen du. Artisautza feria batean ezin dut deus saldu, kanpotik datorrena askoz merkeagoa delako. Inporta-

«Makina inportaziotik datorren produktuak ordezkatzeko du, beste herrialde batzuetako eskulan merkearekin egindako lana saltzen da saltoki handietan»

tzen dena erosi edo ez dut bizi-tzerik.

■ **Dena dela, zaldi gainean ibiltzeko ohitura gero eta handiagoa da Euskal Herrian. Nabaritzen duzu zerbait?**

Bai. Askok nabaritzen da, batez ere ganadu azoketan. Joaten naizenean dexente saltzen dut, baina hortik kanpo saltzen dena inportatua da. Ez dizkizut prezioak esanen, baina aldeazugarria da, ezin dut inportatzen den prezioetan lan egin. Horrek hiltzen ditu artisau ofizioak. Nahiz eta berreskuratzen saiatu, inportazioa dagoen bitartean ezinezkoa izanzen da, eta merkataritza bide horretatik doa, globalizaziora, eta gurdi horretara igo behar dugu.

■ **Orain zintzarriak egiten hasi zara. Nola otu zitzaizun ideia?**

Nire lana animalientzako larruzko edozein gauza egitea da, eta ganadu azoketara eramaten

du hori guztia. Zintzarriak ere eramaten behar ditut, behientzako eta ardientzako lepokoak ere egiten ditudalako. Orain arte, saltzeko erosi egiten nituen, ez zitzaizkidalako ongi ateratzen, baina orain saioak egiten hasi naiz eta behar bezalako zintzarriak egin arte ez dut etsiko. Arazoak ditut zintzarriekin, ez dudalako erakustunik; lehiakide bat naizenez inork ez dit irakatsi nahi.

■ **Beraz, artisautzaren etorkizuna latza da?**

Bai. Uhalgile bezala aritzea laster ezinezkoa izanzen da inportazioengatik. Zaldien gorakada egon ez den bitartean beste inork ez zuen muturra sartzen, baina orain saltoki handietara joan eta zaldia jantzeko behar den guztia dute. Inportatua da, gurea baino garestiago saltzen dute, baina jendeak erosi egiten du.

→ Irene Arrizurieta



Nafar Kronika

Mikel Beramendi

Barcinaren plagioa

Gehiegizkoa iruditzen zait Iruñeko UPNk plagiatuak sortu duen iskanbila. Ez da hain larria, aizue. Azken finean, gauza jakina eta aitortua da gure zaletasunaren sailkapenean irakurzaletasuna beheko postuetan dagoela eta, tira, politikoei afizioa bultzatzeko ahalegina egitea txalotzeko modukoa da, nahiz eta horretarako aurretik argitaraturiko liburua plagiatu behar.

Egoera hobetzen ari da. Gogoratu, bestela, UPNko alkate hark harro errandakoa: «Nik oporretan zer irakurtzen dudan? Deus ez, ez dut aspertzeko denborarik». Alkate ilustratu haren maila hobetuz, alkatesagaiak Jose Maria Romerak prestaturiko liburutik testu batzuk hartu (baimenik gabe, noski) eta liburuxka batean eskainiz mezu argia bezain pozgarria helarazi digu: harrigarria badirudi ere, UPN eta kultura ez dira bateraezinak. Albiste ona, dudarik gabe.

Aferagatik pizturiko polemika gehiegizkoa da, bai. Izan ere, Udalak berak duela urte batzuk argitaraturiko liburua plagiatzea oso eredu garria ez bada ere, askoz larriagoa eta mingarriagoa dira UPNkoen azken asteetako beste erabaki batzuk, bi bereziki. Bata, Bianako Kultur Printzea saria demokraziaren aurka eta heriotza zigorraren alde dagoen opuseko unibertsitateko irakasle bati eman izana (Javier Ayestaranek saridunak azken urteetan idatzirik utzi dituen *perla* batzuk bildu zituen Madrilgo egunkari batean). Eta bigarrena, ustezko demokratek nori eta Del Burgoren aitari sari berezia ematea bizitzan zehar kulturaren alde egin omen duen lana eskertze-ko.

Lehenengo erabakia onartezina da demokrate guztientzat eta sari bera jaso dutenak ere ez dut uste oso egoera erosoan utzi dituenik. Bigarrena mingarria da askorentzat, batez ere 36ko gerran demokratek izateagatik afusilatu zituztenen familientzat. Aipatu erabakiek liburu bat plagiatzea baina askoz larriagoa izateaz gain lotsagabekeria handia erakusten dute.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- ▶ **Antsoain:** Latzen eta Ostaldeentzako kontzertua izanen da gaur, 23:00etan, gaztetxean.
- ▶ **Aitzoain:** King Mafrundik kontzertua eskainiko du gaur, Artsaia aretoan, 22:00etan.
- ▶ **Burlata:** Buitraker, La Polla eta Goa taldeen kontzertua bihar, Askatasunan.
- ▶ **Iruñea:** Valeruzek, Olabarrietak eta Tabernerok jazz kontzertua eskainiko dute asteazkenean, 23:00etan, O'Connor's tabernan.
- ▶ **Iruñea:** Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua ostegunean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.
- ▶ **Iruñea:** Jarabe de Palo taldearen emanaldiagaur, Anaitasunan, 23:00etan.
- ▶ **Iruñea:** Paco Ibañez eta Imanolak kontzertua eskainiko dute asteartean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.
- ▶ **Lizarra:** Hechos contra el decoro, Dusminguet eta Dr Floating taldeen kontzertua bihar Artabia herrian, doan.

ERAKUSKETAK

- ▶ **Iruñea:** Franss Conde H-ren lanak ikus daitezke ekainaren 27a arte Lacava tabernan.
- ▶ **Burlata:** Donejakue Bideko argazki erakusketa astelehena arte Kultur Etxean.

ANTZERKIA

- ▶ **Burlata:** Mundo Nuevo taldeak *Escenas del camino* Donejakue Bidearen inguruko lana antzeztuko du bihar, 20:00etan, Hilarion Eslava musika eskolan.
- ▶ **Tiebas:** T'Omblijo Teatrotan *La fiesta del abuelo mudo* lana etzi, 19:00etan, elkartean.
- ▶ **Zangoza:** TEN Pinpininpau-xak *Así son los animales* lana antzeztuko du bihar, 18:30etan, Karmengo Entzutegian.

▶ **Barañain:** Iturrama institutuko antzerki taldearen *Porru patata* lana ostegunean, 20:00etan, udaletxean.

BESTELAKOAK

▶ **Iruñea:** Sanferminetan jartzten diren barraketako kartela erabakitzeko lehiaketa antolatu du Barraken Batzordeak. Lanak ondoko baldintzak bete behar ditu: DINA-3n egina izan behar du, *Barrakak gure alternatiba* leloa jarri be-

har zaio, eta irabazleak 50.000 pezeta jasoko ditu. Lanak Eguzki talde ekologistak Iruñeko Kale Berrian duen egoitzara igorri behar dira ekainaren 8a bitartean.

▶ **Irurtzun:** Trinitate festak ospatuko dituzte gaur, bihar eta etzi. Kultur Kontseiluak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Besteak beste, Aska taldearekin dantzaldia izanen da gaur 20:00etan, eta bihar Erga-Larrea elkarteak txistor


jatea prestatuko du 21:00etan.

▶ **Iruñea:** Hemingway jaio zeneko mendeurrena dela eta, Allen Josephsek *Ernest Hemingway y los otros* hitzaldia gaur, Iruñeko Kutxan (Armad Etorbidea), 20:00etan.

▶ **Etxarri-Aranatz:** Ana Karmen Huarte dietetikan adituak anorexia eta bulimia izanen ditu mintzagai ostegunean, 19:30etan, Kultur Etxean.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¿Qué comerá o rey?
—Comerá..., comerá... sucre.